



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
Maria Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko abenduaren 14an, 16:30ak direnean, Ohiko Bilkuran elkartzan dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 5 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA.

Ohiko bilkurak egiteko aldizkakotasunari buruz eztabaidatu da. Horrela, ikusirik 2015eko uztailaren 13ko Osoko Bilkuran erabaki zela hilabete behin egitea eta kontuan izanda maiztasun hori gehiegizkoa gertatu dela, aho batez erabakitzen da: ohiko bilkurak bi hilean behin egitea, hilabete bikoitietan, azkeneko ostegunean ahal izanez gero.

3. 2018KO ZERGA ETA TASAK.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, aho batez erabakitzen da:

1. Zerga-tasa hauek onestea 2018rako:

- Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,32 katastroko balore berri garbien gainean.
- Landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,678 katastroko balore berri garbien gainean.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: %3,00 obraren egiazko kostu osoaren gainean (obra gauzatzeko aurrekontuarena).
- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga: bere horretan mantentzen dira indarrean dauden indizeak eta tasak.

2. Ur banaketa eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko 2018rako tasak:

2.1. Horniduraren kuota finkoa. Kontagailuaren diametroaren arabera, hiruhileko bakoitzeko:

- 10 mm bitarte: 2,50 euro.
- 11tik 15 mm-ra bitarte 3,00 euro.
- 16tik 25 mm-ra bitarte: 4,50 euro.
- 26tik 40 mm-ra bitarte: 12,10 euro.
- 41etik 50 mm-ra bitarte: 13,00 euro.
- 51tik 60 mm-ra bitarte: 23,50 euro.
- 61 mm-tik aurrera: 31,50 euro.

2.2. Saneamenduaren kuota finkoa: 3,00 euro/hiruhilekoa.

2.3. Lotunearen eta hargunearen tasa eta ikuskapena egiteagatik sortutako tasa bere horretan mantentzen dira.

2.4. Horniduraren kuota aldakorra:

- A-1 tarifa: etxeko erabilerarako hornidura kontratatuak:
 - 60 metro kubiko bitarte: 0,35 euro/m³.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- 61etik 80 metro kubiko bitarte: 0,46 euro/m³.
- 81etik 120 metro kubiko bitarte: 0,84 euro/m³.
- 120 metro kubikotik aurrera: 1,27 euro/m³.

– A-2 tarifa: industrian eta merkataritzan erabiltzeko hornidura kontratatuak:

- 650 metro kubiko bitarte: 0,40 euro/m³.
- 651tik 2.000 metro kubiko bitarte: 1,06 euro/m³.
- 2.001etik 5.000 metro kubiko bitarte: 1,40 euro/m³.
- 5.000 metro kubikotik goiti: 1,59 euro/m³.

–A-3 tarifa: ezkutuko ur-jarioen ondoriozko kontsumoak: 0,11 euro/m³.

3. 2018. urterako mantentzea auzolanetik libratzeko ordainaren zenbatekoa; alegia, 40,00 euro ordaindu beharko da auzolan bakoitzeko.

4. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren gutxieneko kuoten gainean 1,1 indizea aplikatzea.

5. Erabaki honek 2018ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, eta indarra izaten jarraituko du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitaratzea, dagozkion legezko ondorioak izan ditzan.

4. 2018KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2018ko aurrekontu egitasmoa aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea 2018ko aurrekontu orokor eta bakarrari.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan .

Hau da aurrekontuaren laburpena:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapituluua.	Zuzeneko zergak:	93.926,00
2. Kapituluua.	Zeharkako zergak:	12.500,00
3. Kapituluua.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	35.040,00
4. Kapituluua.	Transferentzia arruntak:	175.582,51
5. Kapituluua.	Ondareko dirusarrerak:	17.025,07
7. Kapituluua.	Kapital transferentziak:	130.045,60
	DIRUSARRERAK GUZTIRA:	464.119,18

GASTUAK:		EUROAK
1. Kapituluua.	Langileen lansariak:	72.120,00
2. Kapituluua.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	95.339,37
3. Kapituluua.	Finantza-gastuak:	260,00
4. Kapituluua.	Transferentzia arruntak:	137.560,00
6. Kapituluua.	Inbertsio errealak:	149.939,81
9. Kapituluua.	Finantza-pasiboak:	8.900,00
	GASTUAK GUZTIRA:	464.119,18



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jarraian, 2018ko plantilla organikoa azterturik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236. eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespena ematea 2018ko plantilla organikoari.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

2. Kontu-hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, B1 edo baliokidea. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

Funtzionarioen izenen zerrenda

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 3. gradua. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrazio araubideko kontratadunen izenen zerrenda:

Idazkaria: Miguel Jose Belarra Tellechea. Maila: A. 4. gradua. Antzinasuna: 1992/07/01.

Kontu-hartzailea: Aitor Navarro Aristorena. Maila: B. Antzinasuna: 2013/07/15.

Lan-kontratadunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: Amaia Ochandorena Mindegua. Maila: D. Antzinasuna: 2000/11/02.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5. ESKABIDEAK.

1. Idazkariak irakurri du Herrilurren Atalaren txostena 2 poligonoko 501 partzelaren azalera eta mugei buruz. Txostenaren arabera, lursailak metro gehiago dauzka Katastroan eskriturretan baino eta zuzenketa egitea proposatzen du. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

- Txostenaren edukia onestea eta Herrilurren Atalari eskatzea katastro aldaketa gauzatzeko izapideak abian jartzea.
- Txostenaren kopia bidaltzea 2 poligonoko 501 partzelaren jabeei.

Bestalde, aho batez erabakitzen da lursailaren mugatik hurbil dauden 2 haritz amerikar botatzeko baimena eskatzea Nafarroako Gobernuari.

2. I.B.E.k baimena eskatu zuen Ameztiko bidean seinaleak eta abiadura murrizteko 2 banda jartzeko, harrapatze arriskua ekiditeko. Eztabaidatu ondoren, toki-bidea izanik, aho batez erabakitzen da txostena eskatzea Nafarroako Gobernuari, horrelako ekintzak baimentzeko Udalak daukan eskumenari buruz eta, jartzea posible izanez gero, bandek bete beharko lituzketen baldintza teknikoei buruz.

3. Aho batez onetsi da GDEIM IZIKeko saharar preso politikoei ezarritako zigor bidegabe eta ilegalen aurkako mozioa.

4. Mahaia gainean geratu da J.C.E.A.k aurkeztutako eskaera, Iturengo Herriko Ostatuko errentamendu kontratua hartzeko jarritako fidantza itzultzeko. Eraikina ikuskatuko da eta indargabetzearen arrazoi nagusia osasun egoera izan dela kontuan hartuko da.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/36 zenbakia, 2017ko irailaren 6koa, zeinean erabaki baitzen M.A. hautatzea Udala aholkatzeko Kontratazio Mahaian Plan Orokorra egiteko laguntza kontratua esleitzeko.
- 2017/37 zenbakia, 2017ko urriaren 4koa, zeinean erabaki baitzen U.B.ri ematea lizentzia *Berelain* etxea handitzeko.
- 2017/38 zenbakia, 2017ko urriaren 18koa, zeinean erabaki baitzen 2016ko urriaren 11n J.A.ri emandako bereizketa lizentzia berrestea.
- 2017/39 zenbakia, 2017ko azaroaren 3koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea Ingurune Naturalaren Zerbitzuari sasiak kentzeko lanak egiteko *Ormatza* parajea.
- 2017/40 zenbakia, 2017ko azaroaren 10ekoa, zeinean erabaki baitzen *Aurtizko Ostatuko* ordutegia luzatzea San Martineko jaietan.
- 2017/41 zenbakia, 2017ko azaroaren 15ekoa, zeinean erabaki baitzen A.E.ri ematea lizentzia lurreko sua aldatzeko *Baserdena bigarrenena*.
- 2017/41A zenbakia, 2017ko azaroaren 23koa, zeinean erabaki baitzen proposamena aurkezteko gonbidapena bidaltzea Excavaciones Joarbe SL enpresari, "Ikastetxe publikorako lursailaren sarbidea eta zerbitzuen urbanizazioa" izeneko proiektuan dauden obrak kontratatzeko prozeduraren baitan.
- 2017/42 zenbakia, 2017ko abenduaren 1ekoa, zeinean ebatzi baitzen A.G.k aurkeztutako berraztertze errekurtsoa.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- 2017/43 zenbakia, 2017ko abenduaren 12koa, zeinean erabaki baitzen M.J.M.ri ematea lizentzia *Sagardebehea etxeko* fatxadak zarpiatu eta pintatzeko.

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali den baso aprobetxamenduko baimen eskaera —T.E.rena—; Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 1140/2017 Ebazpena —sakabanaturiko zuhaitzia aprobetxatzeko baimena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak — J.M.S., T.E., F.J.S. (2), B.U., J.A.L., L.I. eta J.I.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpenak —2017ko irailaren 27koa, J.L.E.i baimena eman ziona arbolak mozteko; 2017ko irailaren 27koa, Malerrekako Mankomunitateari baimendutako ur-aprobetxamenduko ezaugarriak aldatu zituenak; 2017ko azaroaren 23koa, A.L.O.ri baimena eman ziona hormigoizko areka eraikitzeko *Urdobiko* errekan; 2017ko azaroaren 23koa, A.I.ri baimena eman ziona baso aprobetxamendua ateratzeko—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —I.E.ren altak eta baja; A.A., A.E. eta M.J.E.n altak; J.M.M.ren alta eta baja—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; *Igerizarretako* presaren inguruan Gestión Ambiental de Navarrarekin egindako bileraren akta: kontu-hartzailearen eszedentzia berezia onesten duen Ebazpena.

Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, gai hau aztertu da:

1. Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 434 eta 535 partzeleki dagokiona, industria-hiri lurzorua handitzeko. Iturgintza Berotza SL da espedientearen sustatzailea. Arkitekto aholkularien txostenak kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 78 eta 77. artikuluekin bat etorritz, aho batez erabakitzen da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.
3. Espedientea igortzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenetako gaiez.
4. Erabaki hau jakinaraztea aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei eta mugakideei.
5. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari arkitekto aholkulariek abenduaren 14an emandako txostenaren kopiaekin batean, ohartaraziz agiria osatu behar duela behin-behineko onespina baino lehen, txostenean aipatzen diren agiri guztiak aurkeztuz.

8. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Eta bertzerik ezean, 19:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.